

**CONCOURS DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

**« Concours Externe Spécial »
« Second Concours Interne Spécial »**

**Épreuve écrite
BASQUE**

Du mercredi 14 avril 2021 de 09H00 à 12h00

Durée : 3 H - Coefficient : 2

L'usage des calculatrices et du dictionnaire est interdit.

Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4.
Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.

Anbroxio

Koxepa herriko neska erneena zen, beti laguntzeko prest eta fazoinik gabekoa. Haren anaiek, Koxepak bezala, bihotz handia zuten. Alemanek Frantzia gehiena okupatu zutenetik, alemanengandik ihesi zetozenen laguntzen ibiltzen ziren. Haiei esker ezagutu zuen Koxepak, nolazbait, Joanes.

5 Arrats batez, Koxeparen anaiek laguntza galdegin zioten. Mugan hitzordua bazuten Joanes eta Eusebiorekin, Iheslari batzuk Amaiurreraino laguntzeko eta etxean aterpetzeko egun osoan. Halaxe zuten usaia. Bertze aldietan ere, iheslari frango gorde zuten etxaldean. Aldi hartan, bi anaietarik batek zangoan minartu zuen sei oren lehenago eta ez zen etxetik higitzen ahal. Bertze anaiak, ordea, emaztegaiaren aitaren ehorzketak zituen
10 Elizondon eta arratsean han egoitera behartua zen. Bertzenaz ere, emaztegaiaren familian zenbait frankista bazen eta ez zen zuhurtzia halako memento goibel batean, mugalaritzarako, lekuen hustea. Behin betikotz erretzeko arrisku har zezakeen edo, bederen, arretaren piztekoa eta hori ere ez zen on.

15 - Koxepa -erran zion anaia zaharrenak-, gaur gauean, gauaren erdian, gure bi lagun etorriko ditun etxera, iheslari batzuekin. Lekuak ezagutzen ditine. Usaian bezala gibleko ezkaratzetik sartuko ditun. Iheslariak sabaian gordeko ditun.

Koxepak bazekien etxeko berri eta bertze aldietan ere iheslarietara jatea igaiten zien sabaira. Aldi hartan, gauaren zati handi bat airean iragan beharko zuen. Ganerreko gibleko leihotik begira egon zen ere, ea gizon taldea noiz hurbiltzen zen. Noizbait itzal bat
20 ikusi zuen lasterka eta erdi gordezka ezkaratzera buruz heldu. Koxepa berehala jautsi zen atearen irekitzeko. Joanes zen.

- Gau on Koxepa. Zer gertatu da? Zendako ez dira agertu? -galdetu zuen Joanesek lasaitasun osoz.

25 - Ez da deus larririk. Mattinek zangoan minartu du eta Koxemielek Elizondora joan behar izan du, emaztegaiaren aita hil baitzaio. Iheslariak aterbetuko ditugu, gustu gustuan.

Joanesek besoz keinu egin zien bertzeei, etor zitezkeela adieraziz. Eusebiok eta errusiarrek bi minutu eman zituzten etxalderaino heltzeko. Bitartean Joanes eta Koxepa elkarri zer erran ezin asmatuz egon ziren. Solas batzuk eta irri herabe batzuk atera zituzten hala ere. Koxepak behin baino gehiagotan ikusten zuen Joanes, anaiekin
30 solasean, egunaz etortzen zelarik. Baina ez zen sekulan gertatu harekin buruz buru. Ez zuen behin ere elekatu. Lehen aldian solas batzuen atxemaiten ez da baitezpada errex, bereziki Koxeparentzat, itsasuar horrek hastapenetik zirraraño bat eragiten baitzion.

Iheslariak aterpera heldu zirelarik, Joanesek Koxepa eskertu eta agurtu zuen, sorbalda amultsuki hunkituz eta begi keinu eginez. [...]

35 Joanesentzat gau guziak ez ziren goxoak izan. Ortzirale gau hartaz bere bizi guzian orroitu zen. [...]

Tenorea hurbildu zitzairen eta Joanes eta Eusebio ingeles parearen bila atera ziren. Sekulan baino erneago, belarriak txut, begiak xorrotx, eraman zituzten bi iheslariak. Nehor gurutatu gabe igan ziren mugara, ingelesak Amaiurko lagunak esku utzi eta etxerako
40 bidea hartu zuten.

Ordu arte bazterrak sobera lasai zeuden, ez zen normal. Ingelesak bederen ez zituzten harrapatuko, salbu ziren. Baina gauaren bigarren zatiak bazuen bere garrantzia

eta arrisku heina. Berriz erreka jaustean gerta zitekeen ezbeharrik larriena, gune hartan baitzuten soldaduekin buruz buru gertatzeko aukerarik handiena.

45 - Nor dabil hor?

Redios! Bi SS hogeita hamar metro urrunago, herrirako norabidean! Haien argiek Joanes eta Eusebio itsutu zituzten, bidez aldatu behar zuten. Lasterka joan ziren beren ezkeraldera, alemanen kontrako aldera, oihana berrogeita hamar metroan baitzuten. Bitartean, tiroei ihes egin behar.

50 - Geldi ! Geldi! -oihukatzen zuten SS-ek alemanez.

55 Tiro bat, bertze bat! Bi itsasuarra alde guztietara ari ziren lasterka, ezkerrera eta eskuinera, tiroei errekiago ihes egiteko gisan, oinak arin. Joanesek bala baten haizea hurbil hurbiletik senditu zuen pasatzen, bertze batena ere handik laster. Eta zein luze diren berrogeita hamar metro kixkil, gibeletik tiroka ari zaizkizularik! Helduko ote naiz! Helduko ote naiz! Hamar metro baizik ez, eta tiroak mehatxuka! [...] Lau jauzi bertzerik ez zitzaizkion falta oihanean sartzeko. Bihotza punpeka punpeka, segundu bukaezinak, hortzak tinkaturik, begiak ia hetsirik, sudurra eta matelak zimurturik, azken jauzia eta oihanean sartu zen; bertze zenbait urrats lasterka arrisku handienetik aterian gelditzeko. Joanes salbu zen.

ANBROXIO, Eneko Bidegain, 2002

COMMENTAIRE GUIDÉ

Testu honen azterketa eginen duzu gogoeta-ardatz hauetatik abiatuz :

1. Euskal Herriko muga.
2. Euskal Herritik pasatzen ziren erresistentzia sareak.
3. Memoriaren transmisioaren garrantzia.

TRADUCTION

Artikulu honen itzulpena eginen duzu 5. lerrotik 16. lerrorat « *Arrats batez [...] sabaian gordetuko ditun* ».

“Arrats batez, Koxeparen anaiek laguntza galdegin zioten. Mugan hitzordua bazuten Joanes eta Eusebiorekin, Iheslari batzuk Amaiurreraino laguntzeko eta etxean aterpetzeko egun osoan. Halaxe zuten usaia. Bertze aldietan ere, iheslari frango gorde zuten etxaldean. Aldi hartan, bi anaietarik batek zangoan minartu zuen sei oren lehenago eta ez zen etxetik higitzen ahal. Bertze anaiak, ordea, emaztegaiaren aitaren ehorzketak zituen Elizondon eta arratsean han egoitera behartua zen. Bertzenaz ere, emaztegaiaren familian zenbait frankista bazen eta ez zen zuhurtzia halako memento goibel batean, mugalaritzarako, lekuen hustea. Behin betikotz erretzeko arrisku har zezakeen edo, bederen, arretaren piztekoa eta hori ere ez zen on.

- Koxepa -erran zion anaia zaharrenak-, gaur gauean, gauaren erdian, gure bi lagun etorriko ditun etxera, iheslari batzuekin. Lekuak ezagutzen ditine. Usaian bezala gibleko ezkaratzetik sartuko ditun. Iheslariak sabaian gordeko ditun.”